

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ogasunak higiezin eta finken balioespen fiskala merkatuko prezioetara egokituko ditu

Haietako zati handi batean jaitsiera bat izango da, eta oinordetzako nahiz ondare-eskualdatzeen gaineko zergeri eragingo die


Martes, 20 de enero de 2015

Nafarroako Zerga Ogasunak foru-dekretuko proiektu bat egin du Foru Komunitateko higiezin eta finken balioespenak egiten diren prozedura berrikusteko asmoz, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergen kudeaketari eta ondare-eskualdatzeen eta dokumentatutako egintza juridikoei dagokienez.

Araudiaren proiektuan azaltzen denez ([urtarrilaren 20ko NAO, 12. zk.](#)), higiezin merkatuaren bilakaerak ondorengo ekarri du: gaur egun indarrean dagoen estatistika-metodoaren arabera kalkulaturako higiezin balioak merkatuko balioen gaintik izatea hainbat kasutan; beraz, beharrezkoa ikusi da haiek

berrikustea, merkatuko egungo prezioei egokitzeko. Praktikan, horrek eragingo du, zerga horien xede diren higiezin nahiz finken zati garrantzitsu batean balioespen fiskalak jaitea: etxebizitzak, pisuak eta familia bakarreko etxeak, ibilgailuen aparkalekuak; trastelekuak; eta nekazaritza nahiz basozaintzaren ikuspegitik aprobetxa daitezkeen lurzoruak.

Ondasun horien balioespena egiten da, haien salerosteko prezioen bilketa batean oinarritutako estatistika-formulekin, orain eguneratzen dena, eta beste faktore batzuk ere sartzen dira: etxebizitzaren kasuan, eraikuntzaren urtea eta azalera, altuera, zonaldea, egindako berrikuntzak, igogailua dagoen, atikoa den, besteak beste. Aparkalekuen eta trasteleketuetan, metro koadro bakoitzeko balioa kalkulatzeko eragina duen



Ogasunak finken eta higiezin balioespena merkatuara egokituko ditu.

faktore bakarra, kokapen-gunea da. Nekazaritza eta basogintzaren ikuspegitik aprobetxagarriak diren lurzoruetarako, balioa "sailkapena" eta "mota" kontuan hartuz kalkulatzen da, udalerrri bakoitzaren arabera.

Testuak balio horien koefiziente zuzentzaileak sartzeko aukera ere jasotzen du, merkatuak duen bilakaeraren arabera, lege-mailako aldaketak beharrezkoak izan gabe eta balioespeneke beste prozedura oso batzuk egiteko beharrik izan gabe.

Araudiaren aldaketa honek pertsona askori eragin diezaiekeela ikusirik, Foru Dekretuaren proiektu hori jendaurrean jarriko da hilabetez, interesdun guztiek –herritarrek nahiz erakunde eta elkarteek– dagozkien ekarpenak egin ahal ditzaten [Gobernu Irekiaren Atari](#)aren bidez. Gainerako izapideak amaitzen direnean, aldaketa aurtengo lehen seihilekoan indarrean sartuko dela aurreikusten da.